



Hezkuntzarako COVID-19 koordinaziorako batzorde teknikoa

2021-2022 IKASTURTEKO 3. BILERA. - 2021eko AZAROAREN 25a, OSTEGUNA

PARTE-HARTZAILEAK:

Nafarroako Eskola Kontseiluko hezkuntzarako COVID-19 koordinaziorako lan-batzordeak 3. bilera egin zuen, 10:00etan, aurrez aurre, Hezkuntza Departamentuko ekitaldi-aretoan, Carlos Gimeno Hezkuntzako kontseilaria eta Gil Sevillano Hezkuntzako zuzendari nagusia bertan zirela. Han ziren ordezkari hauek: Hezkuntza Departamentuaren aldetik, Eneko Ardaiz Azpiegituren Zerbitzuko zuzendaria, Luis Calatayud Informazio Sistemien Zerbitzuko zuzendaria, Alberto Urrutia Ikuskapen Zerbitzuko zuzendaria; Osasun Departamentuaren aldetik, (Arantxa Legarrak, Osasun Komunitarioa Sustatzeko Zerbitzukoak, ezin etorria adierazi du), Aurelio Barricarte Epidemiologiako Zerbitzukoak; Batzorde Iraunkorraren aldetik, (LABeko Gorka Bueno, LABeko Oihana Jordana, ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, STEILASeko Arantxa Ruiz Vidorretarekin batera; FSIE-SEPNAko Pilar López Valderrama, ikastetxe itunduetako irakasleen ordezkaria; Herrikoako Noelia Echarri, ikastetxe publikoetako guraso-elkarteen ordezkaria; eta CONCAPAko Teresa Modol, ikastetxe itunduetako guraso-elkarteen ordezkaria. Jorge Lanchas ikastetxeetako erakunde titularren ordezkariak ezin etorria adierazi du, Antonio Iriarte, idazkaria. María Lourdes García Roncal, Unibertsitateko Zerbitzukoak. Iosu Mena, ADIko lehendakaria (Zuzendarien Elkartea). Pedro Rascón Nafarroako Eskola Kontseiluko kideak ezin etorria adierazi du. Batzordeburu, Manuel Martín Nafarroako Eskola Kontseiluko burua.

Gai-zerrenda:

1. Azken bileraren akta.
 2. Zertan diren une honetan ikastetxeetako kasu aktiboak. Informazio mota berria.
 3. Kontingentzia Plana eguneratzeko proposamenak.
-
1. 2021-2022 ikasturteko 2. bileraren akta (2021eko urriaren 21ekoa, osteguna). Onetsi egin da.
 2. Zertan diren une honetan ikastetxeetako kasu aktiboak. Informazio mota berria.

Carlos Gimeno Hezkuntzako kontseilariak eta Gil Sevillano Hezkuntzako zuzendari nagusiak azaroaren 25ean pandemia zertan den azaldu dute, eta azpimarratu dute infekzio-maila aurreko ikasturtekoarena baino kezkarriagoa dela. Nafarroako biztanleen positiboak hezkuntza-sistemaren positiboekin lotuta daude, baina horiek aurreko ikasturteko azaroaren amaieran baino askoz gehiago dira. Eta era berekoak dira HHko eta LHko positiboen eguneroko kopurua. Bertaratu guztiei grafikoak banatu zaizkie.

Dena den, aurrez aurreko eskolak ematen jarraitzea proposatzen du, baina goizeko eskolaldi trinkoaren alde eginez.

LABeko Gorka Buenok galdetu du ea badagoen eskolaldi bat edo bestea bermatzen duen arrazoi zientifikorik. **Gil Sevillanok** erantzun du jantokia (maskararik gabeko tokia) arrisku handiagoko unea dela, eta, horregatik, lanaldi zatitua arriskutsuagoa dela. Uste du ezen, emandako datuen ondoren, ikastetxeei eskolaldi zatitua edo jarraitua aukeratzeko aukera eman behar zaiela.



CONCAPAko Teresa Modolek dio jantokian ez dagoela arriskurik, kanpoaldean baizik. Beste hezkuntza-erkidego batzuekin alderatu beharko litzatekeela uste du. Ikasgeletan jateko aukera proposatzen du. **Gil Sevillanok** esan du ez dagoela horretarako logistikarik ikastetxeetan.

Osasun Departamentuko Aurelio Barricartek jakinarazi du ezen, abenduaren 16tik aurrera, eta egiten ari den azterlanean aldeko erabakia hartu ondoren, 4-11 urteko ikasleei txertoa jarriko zaiela, beren adinerako egokia den Moderno txertoa, hain zuzen.

Herrikoako Noelia Echarrik eskatu du geldiarazteko eskolaldi jarraituari buruzko deialdia, gaur egungo egoerak erabakietan eragina izan baitezake. **Gil Sevillanok** esan du familiek seme-alabak matrikulatu aurretik jakin behar dela eskolaldiari buruzko erabakia. Baliteke oraingo egoerak eragina izatea ala ez, baina ez du eraginik deialdia geldiarazteko.

Steilasko Arantxa Ruizen ustez, lanaldiak oraingoa izaten jarraitu behar du, hau da, jarraitua ikasturte bukaera arte. Ikastetxeetarako aire-garbigailuak erosteko eskatu du. **Azpiegituren Zerbitzuko Eneko Ardaizek** uste du eros daitezkeela.

ADIKo Iosu Menak adierazi du zentzuzkoa dela oraingo eskolaldiari eustea ikasturte bukaerara arte, gaur egungo egoera dela eta, baina gaitzetsi du eskolaz kanpoko jarduerak burbuila-taldeak haustea. **Gilek** adierazi du beren gain hartu dutela kontziliatzeko beharrak sor dezakeen arriskua, nahiz eta parte hartzen duten ikasleak jantokikoak baino askoz gutxiago izan eta, gainera, boluntarioa izan.

Herrikoako Noelia Echarrik eta **CONCAPAko Teresa Modolek** bat egin dute honetan: ikastetxe bakoitzak zeukan eskolaldia egiten hasi beharra zegoen, baina, hala izan ez zenez, une honetan egoerak zaildu egiten du lanaldi jarraitua egiten ez segitzea. Gizartea prebentzio-neurrietan lasaitu dela uste dute, eta hau ondorioa da. Aire-garbigailuen azterketari buruzko eskaeran ere bat datoz.

Unibertsitateko Zerbitzuko María Lourdes García Roncalek jakinarazi du bere esparrutik, oraingoz, albiste guztiak onak direla.

Azkenik, erabaki da hurrengo bilera 2022ko urtarrilaren 20an egingen dela, osteguna, 10:00etan.

Manuel Martín Iglesias

Lehendakaria